







## Denbora.

## 3 Sarrailek

Josebak etxeko giltzaren kopia egin zuen. Poltsikoan giltza gehiegi eramaten ditu, eta, orain, etxeko giltza bilatu ezinik dabil. Lagunduko diozu errepikatzen diren giltzak bilatzen?



ERANTZUNAK: 1.- Hegazti bat. 2.- Artzain txakurra, kokerra, boxerra, pekinesa, husky, bulldog eta chow chow. 3.- 3 eta 4. 4.- a) Chupa-Chupsa, b) goxokia, c) piruleta, d) izozkia. 5.- a) Marra, b) Nora, c) Haizea, d) Enara. 6.- b eta f.



## 4 Itzalak

Garazi goxoki dendara joan da, eta poltsa bete goxoki ekarri du lagun guztientzat. Itzal hauei begiratuta, asmatuko al zenuke Zein lau goxoki ezkutatzen diren itzalen atzean?

# -pasa

## 5 Ezkutuko hitza

Hizki guztiak nahastuta daude. Hizkiak ordena egokian ezartzen badituzu, nesken lau izen osatzea lortuko duzu. Zein lau izen daude gordeta

ARATM 


ROAN 

EAIZHA 

ANRAE 

## 6 Bikiak


Beñaten aitona orain arte erabilitako pipa guztiak armairuan gordeak ditu. Guztiak ezberdinak diruditen arren. Bi berdinak dira. Zeintzuk?



## jolasa

### Esku metaketa

Esku metaketa joko arrunta da, baina jostagarria. Abiadurak eta jokalarien trebetasunak garrantzi handia dute, esku metak denbora luzez iraun nahi badu, behintzat.



- 1 Jokalari guztiak biribilean edo mahai baten inguruan esertzen dira.
- 2 Jokalari batek mahaiaren erdian ezartzen du eskua, esku ahurra beherantz begira duela. Pixkanaka-pixkanaka, gainerako jokalari guztiak eskuak bata bestearen gainean pilatzen joango dira. Jokalari guztiak esku bat jarri dutenean, beste eskua jartzen hasiko dira.
- 3 Meta amaitu ostean, eskua ezarri duen lehen jokalaria eskua kenduko du metaren azpiko aldetik, eta esku pilaren gainean ezarriko du. Gainerako jokalariek ere gauza bera egingo dute.
- 4 Esku aldaketa abiada bizian egiten doaz jokalaria, azkar-azkar, esku meta hausten den arte.